

Izaro Ieregiren “Feroz eta Kabala” lana otsailaren 24ra arte egongo da ikusgai Montehermoson

EHUrekin batera proiektu artistikoak zabaltzeko egiten den deialdian hautatutako lau lanetako bigarrena aurkeztu da

Gaur aurkeztu da prentsaurrekoan Izaro Ieregiren “Feroz eta Kabala” lana, Montehermoso kulturuneak proiektu artistikoak zabaltzeko egiten duen deialdian hautatutako lau lanetako bigarrena. Kultura eta Kirol Arloko zinegotzia, Estíbaliz Canto; komisarioa, Cristina Arrázola-Oñate; EHUko ordezkaria, Edurne González Ibáñez, eta artista bera izan dira aurkezpenean.

Bihar, urtarrilak 25, zabalduko da erakusketa, eta otsailaren 24ra arte ikusi ahalko da. Gorputza, indarkeria eta performance-a dira gai nagusiak. Zenbait hilabetez, artistak ekintza ezberdinak egin ditu gorputzaren, generoaren eta indarkeriaren kontzeptuen gainean, lehenengo bere estudioan, eta gero Tabakalera egindako egonaldi artistiko batean. Ekintzak bideoz erregistratu zituen; hain zuzen ere, horietako azkenean erabilitako egiturek eta egindako bideoek osatzen dute erakusketa.

Izaro Ieregi (1987) EHUko Arte Ederretako fakultateko lizentziaduna da (2010). 2013an OKELA espazioa sortu zuen, Bilbon, beste bi kideekin batera. Bakarkako erakusketak egin ditu leku hauetan: Arizko Dorretxea, Basauri (2017); C.C. San Martín, Buenos Aires (2017), eta Chinese European Art Centre, Xiamen (2017). Honako leku hauetan ere erakutsi du bere lana: Guggenheim museoa, Bilbo (2017); NY Space, Manchester (2016); Getxoarte, Getxo (2016). Egonaldiak egin ditu Bilbaoarte Fundazioan (Bilbo, 2016) eta Tabakalera (Donostia, 2018). 2018an ERTIBILen bigarren saria lortu zuen, eta horri esker egonaldia egin zuen Studio Kura egoitzan (Japonia).

Montehermoso eta EHUren arteko proiektu artistikoak

Programa hau Arte Ederretako ikasleen proiektuak ezagutarazteko asmoz Montehermoso Kulturuneak eta EHUko Arte Ederren Fakultateak eratu duten lankidetzaren baitan kokatzen da. Deialdiak prestaketa-aldian dauden artisten proiektuak ikusarazi eta ezagutaraztea da, bai eta ekoizpen- eta prestaketa-eremuen artean eztabaida eta trukerako gune bat sortzea ere, hartara artistei eremu profesionalarekin eta testuinguru lokalarekin harreman zuzena osatzen laguntzeko.

Harreman horri esker, eta orain artekoan, lehen urratsak eman ahal izan dituzte 31 artista gaztek, beren lanak jendaurrean erakusteko bide nekezean.

Aurten bi berrikuntza ditu deialdiak: batetik, lan bakoitzak katalogo propioa izango du; bestetik, eta garrantzitsuena, erakusketak banakakoak izango dira, eta ez kolektiboa, orain arte bezala.

“Feroz eta Kabala” de Izaro Ieregi se exhibirá en Montehermoso hasta el 24 de febrero

Se ha presentado el segundo de los cuatro trabajos seleccionados en la convocatoria conjunta con UPV-EHU sobre difusión de proyectos artísticos

El segundo de los cuatro trabajos seleccionados en la convocatoria conjunta del Centro Cultural Montehermoso del programa de difusión de proyectos artísticos, “Feroz eta Kabala” de Izaro Ieregi, se ha presentado hoy en rueda de prensa a la que han acudido la concejala de Cultura, Educación y Deporte, Estíbaliz Canto, la comisaria Cristina Arrázola-Oñate, la Decana de la Facultad de Bellas Artes, Arantza Lauzirika, así como la propia artista.

La exposición, que podrá verse en la sala Jovellanos desde mañana 25 de enero hasta el próximo 24 de febrero, trata sobre el cuerpo, la violencia y la performance. A lo largo de varios meses la artista ha realizado diferentes acciones – primero en su estudio y luego en las residencias artísticas de Tabakalera en torno a los conceptos cuerpo, género y violencia. Las acciones se registraron en vídeo y la propuesta expositiva muestra las estructuras que se han usado en la última de las acciones así como los vídeos realizados.

Izaro Ieregi (1987) es licenciada por la Facultad de Bellas Artes de la UPV-EHU (2010). En el 2013 funda con otras dos compañeras el espacio OKELA con sede en Bilbao. Ha realizado exposiciones individuales en la Casa Torre de Ariz, Basauri (2017), C.C. San Martín, Buenos Aires (2017) y Chinese European Art Centre, Xiamen (2017). También ha presentado su obra en estos espacios: Museo Guggenheim, Bilbao (2017), NY Space, Manchester (2016) o Getxoarte, Getxo (2016). Ha realizado residencias en la Fundación Bilbaoarte (Bilbo, 2016) y en Tabakalera (San Sebastián, 2018). En el 2018 gana el segundo premio ERTIBIL y por ello realiza una residencia en Studio Kura, Japon.

Proyectos Artísticos MH-UPV/EHU

Este programa se enmarca en el convenio de colaboración establecido entre el Centro Cultural Montehermoso y la Facultad de Bellas Artes de la EHU/UPV para la difusión de los proyectos de alumnado de Bellas Artes. La convocatoria persigue visibilizar proyectos de artistas en fase de formación, así como generar un espacio abierto de debate e intercambio entre el espacio de producción y el formativo, estableciendo un vínculo directo con el ámbito profesional y el contexto local.

Dicha relación ha permitido hasta el momento dar sus primeros pasos a 31 artistas en el difícil camino de la exposición pública de sus obras.

Este año contiene dos novedades, la primera, cada obra tendrá su catálogo propio y la segunda y más importante, las exposiciones serán individuales y no una colectiva como lo era hasta ahora.